

Panfleto bat atzenduraren kontra



Pello Salaburu

Bilduma: Saiopaperak-Pentsamen.Gizartea, 40

Formatua: 170 x 240 mm

Orrialdeak: 168

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2025-10-03

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-062-9

Materia: Helduentzako literatura



Salmenta prezioa

17,00 €

Historia ahanzturaren gainean eraikitzen da: ahanzi dezagun orain arte gertatua, bueltatu dezagun orrialdea. Orain beste pantaila batean gaude: aitzinari, ez gibelari, behatu behar diogu. Egiteko dugunari. Horrenbeste da hori! Ez gaitezen iraganarekin baraturik gelditu.

Hala gertatu izan da ia beti. Zoritzarrez. Zeren, hori eginik, gizarteak ordaintzen duen prezioa handiegia baita. Hasteko, biktimekin gertatzen dena. Biktimek berriz ere sentitzen dute zapalketa beren gainean, bigarren aldiz. Aitzinera bakarrik behaturik, ekuaziotik kanpo gelditzen dira. Eta gizartearentzako ere kostua izugarria baita: gure arteko bizikidetzaren duintasunean bakarrik eraiki daiteke.

Liburu hau gai horren inguruan munduko parte anitzetan gertatu diren erreferentziaz betea dago. Egileak hemengoa du buruan, jakina. Baina Irlanda, Italia, Frantzia, nazismoren ondoko Alemania edo Estonia, lehenagoko Jugoslaviatik sortu estatu berriak... Besteak beste, toki horietako hiritarren historia pertsonalak etengabe gurutzatzen dira liburuaren orrialdeetan.

Ikusteko, ikasteko, ez atzentzeko. Biktimak gogoan.

Pello Salaburu



Pello Salaburu (Arizkun, Baztan, 1951). Hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean, EHUn eta AEBetako hainbat unibertsitatetan. Hamabi bat liburu argitaratu ditu, bakarrik edo elkarlanean, euskal gramatika eta hizkuntzalaritzaren inguruan, besteak beste: *Baztango euskalkiaz* (1980); *Ikaslearen esku gramatika* (1981); *Hizkuntzaren soinu egitura* (1984); *Arau fonologikoak* (1984); *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (1987az geroztik); *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005). Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohia; Euskaltzain osoa 1985az gero; eta Euskaltzaindiko Euskara Batuko Batzordearen burua gaur egun.

Aurretik bi saiakera argitaratuak ditu: *XX. Mendearen argi-itzalak* (2001) eta *Euskararen etxea* (2002).

http://eu.wikipedia.org/wiki/Pello_Salaburu